



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2018KO MAIATZAREN 7KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2018.05.07.
Ordua: Arratsaldeko 18:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Mentxu Peña Lizarazu and.

Zinegotziak:

Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.
Ander Almandoz Indakoetxea jn.
Juan M. Gonzalez Burguete jn.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Igor Ugalde Salazar jn.

Bertaratu ez direnak:

Iñigo Sarrias Zoco jn., lanagatik.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko akten onespena.
- 2.-Francisco Lazcano Taberna jauna: oihan aprobetxamendu eskaera.
- 3.-Kontseilua: diru laguntza eskaera.
- 4.-2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana: Herriko Etxean eskailerak gainditzeko gailu bat jartzeko lanak.
- 5.-Hiri jarduketarako Plan Berezia (5. poligonoko 971., 972. eta 973. lur zatiak): behin betiko onspena.
- 6.- Hiri jarduketarako Plan Berezia (5. poligonoko 742. lur zatia): hasierako onspena.
- 7.-Udala eta Francisco Iparragirre Almandoz jaunaren arteko trukaketa.
- 8.-Mendiko lanak esleitzeko gonbidapenak.
- 9.- Balorzio txostenaren proiektua: hasierako onspena.
- 10.-Bortzirietako "Uda asaldatu bat. Urteko gerra eta Bortziriak" lan proposamenareko diru laguntza.
- 11.-Alkatearen ebazpenak.
- 12.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2018ko apirilaren 4an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2018ko apirilaren 9an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.-FRANCISCO LAZCANO TABERNA JN.: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Francisco Lazcano Taberna jaunak eta Leonor Sanchez Sardon andreak Lazkanoren Borda alderdian dauden pinuen aprobetxamendua egiteko aurkeztutako eskaera ikusirik (matarrasa, 1. poligonoko 234. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Francisco Lazcano Taberna jaunari eta Leonor Sanchez Sardon andreak eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileei jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

4) Eskatzaileei jakinaraztea aprobetxamendua egin ondoren itxidura kentzeko asmoa izanik, gomendatzen dela bildu eta bertan ez uztea.

5) Akordio hau eskatzaileei jakinaraztea.

3.-KONTSEILUA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak aurkeztutako diru laguntza eskaera eta 2018ko kudeaketa plana.

Kontuan hartuz Arantzako Udalak 2018ko abenduaren 11n egindako bileran erabaki zuela Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluari 100,00 euroko diru laguntza ematea eskatutako helburuentzat.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako kopurua mantentzea eta ordaintzea.

4.-2017-2019 ALDIRAKO TOKI INBERTSIOEN PLANA: HERRIKO ETXEAN ESKAILERAK GAINDITZEKO GAILU BAT JARTZEKO LANAK.

Gai hau mahai gainean uzten da dokumentazio teknikoa ez delakoz egina.

5.-HIRI JARDUKETARAKO PLAN BEREZIA (5. POLIGONOKO 971., 972. eta 973. LUR ZATIAK): BEHIN BETIKO ONESPENA.

2018ko otsailaren 5ean egindako bileran Udal honek erabaki zuen Jose Miguel Errandonea Ordoqui jaunak aurkeztutako Hiri-jarduketarako Plan berezia hasiera batez onestea (Arantzako Udala Katastroko 5. poligonoko 971., 972. eta 973. lur zatietan).

Akordio 2018ko martxoaren 20ko 56. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta epea ireki alegazioak aurkezteko.

Jendaurreko epean ez da alegaziorik aurkeztu.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 72.1. artikulua jarraituz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

1) Jose Miguel Errandonea Ordoqui jaunak aurkeztutako Hiri-jarduketarako Plan berezia behin betikoz onartzea (Arantzako Udal Katastroko 5. poligonoko 971., 972. eta 973. lur zatietan).

2) Espedientea Nafarroako Gobernura igortzea.

3) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

6.- HIRI JARDUKETARAKO PLAN BEREZIA (5. POLIGONOKO 742. LUR ZATIA): HASIERAKO ONESPENA.

Ana Isabel Telletxea Iraola andreak eta Javier Gago Balda jaunak Arantzako 5. poligonoko 742. lur zatian dagoen eraikuntzan bertze bizitza egin nahi dute: Horretarako Plan Berezia aurkeztu du.

Ikusirik aipatutako Plan Berezia.

Ikusirik Udaleko Arkitektoen txostena.

Kontuan hartuz herritarren parte-hartze prozesua egina dela 2018ko apirilaren 25ean.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 72.1. artikulua jarraituz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Ana Isabel Telletxea Iraola andreak eta Javier Gago Balda jaunak aurkeztutako Hiri-jarduketarako Plan berezia hasiera batez onestea (Arantzako Udal Katastroko 5. poligonoko 792. lur zatian).

2) Akordioa jendaurrean edukitzea hilabeteko epean. Epe horretan interesdunek hirigintza espedientea kontsultatu ahalko dute eta, kasu bada, bidezko iruditzen zaizkien alegazioak aurkeztu. Jendaurreko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iraganik, Hiri-jarduketarako Plan Berezia behin betiko onetsizat hartuko da eta horren berri emanen zaio Udalaren osoko bilkurari.

7.-UDALA ETA FRANCISCO IPARRAGIRRE ALMANDOZ JAUNAREN ARTEKO TRUKAKETA.

Arantzako Udala eta Francisco Iparragirre Almandoz jaunaren artean 1993ko abenduaren 15ean irazlaien hitzarmena sinatu zen eta lurren trukaketa ere, konkretuki, 4. poligonoko 10., 15., eta 17. lur zatiak komunala zen 4. poligonoko 22. lur zatiaren zati batekin.

Trukaketa Nafar Gobernuak onartu zuen, 2015eko urtarrilaren 21eko akordioaren bidez.

Egindako trukaketak ez du azalera berdina eta horren balorea ere ez da berdina lurraren kokapena eta balio desberdina delakoz.

Orain eskritura publikoa egin da.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako trukaketaren azalera onartzea.

2) Alkateari ahalmena ematea azalera hori inskribatzeko.

3) Aipatutako eskritura Jabetza Erregistroan inskribatzeko gastuak Udala eta partikularraren artean, hau da, erdibana, egitea.

8.-MENDIKO LANAK ESLEITZEKO GONBIDAPENAK.

Udal honek Basartea S.L. enpresak egindako proiektuan bildua diren lanak diruz lagundu ditu Nafarroako Gobernuak.

Egiteko falta diren lanak esleitu behar dira: basoberritzeak/ basolanak egitea eta pisten moldaketak.

Hori dela eta, aho batez, ERABAKI DUTE:

1)Basoberritzeak eta basolanak lanak egiteko (aurrekontua:9.974,33 euro BEZ barne) gonbidapena ondorengo enpresei igortzea: Berdabio Basogintza S.L., Carlos Txoperena Matxikote, Repoblaciones Etxarte S.L., eta Pako Alzuri S.L.

2)Pisten moldaketak egiteko (aurrekontua:11.271,12 euro, BEZ barne) gonbidapena ondorengo enpresei igortzea: Javier Alzugarai S.L., Sasoi eraikuntzak S.L., Mikel Ubiria S.L.eskabazioak, Peio Aginaga Mazizior eta Iñaki Taberna Iturria.

3) Proposamenak aurkezteko epea maiatzaren 30a ezartzea.

9.- BALORAZIO TXOSTENAREN PROIEKTUA:HASIERAKO ONESPENA.

Gai hau mahai gainean uzten azkeneko Tracasako teknikariekin bilera egin arte.

10.-BORTZIRIETAKO “UDA ASALDATU BAT. URTEKO GERRA ETA BORTZIRIAK“ LAN PROPOSAMENERAKO DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Bortzirietako “Uda asaldatu bat. Urteko gerra eta Bortziriak” lana egiteko (liburua argitaratu eta hitzaldiak emateko) aurkeztutako diru laguntza eskaera.

Kontuan hartuz hori zehazteko bilerak egin behar direla.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1)Gaia mahai gainean uztea bilerak egin arte.

11.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2018ko 45. ebazpenetik 62. ebazpena arte.

12.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Gai zerrendatik kanpo eta, aho batez, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:

13.-2017-2019 ALDIRAKO TOKI INBERTSIOEN PLANA: BIZITOKI IRAUNKORRETARA DOAZEN ETA BIZIGUNEEN ARTEKO BIDEAK MOLDATZEKO LANAK.

18/2016 Foru Legearen bidez, abenduaren 13koa, 2017-2019 aldirako toki inbertsioen plana arautzen du.

Arantzako Udaleko Alkatearen 2017ko otsailaren 24ko 31. ebazpenaren bidez eskatu zen Bordalarrea, Haritz Ondo-Etxezarreta, Mainborda, Irullegi aldea, Aranoko erreka eta Albizko bideak moldatzeko prestatutako memoria baloratuaren arabera (Basartea S.L. enpresak egin) aipatutako planean sartu eta diruz laguntzeko.

Toki Administrazioiko zuzendari nagusiak uztailaren 5ean emandako 303/2017 Ebazpenaren bidez, onesten da 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planean Toki Programazioaren atalean sartutako behin-behineko zerrenda, zehazki “Bizitoki iraunkorretara doazen eta biziguneen arteko bideak” dagozkion inbertsioena.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

Ondoren, Toki Administrazioiko zuzendari nagusiak irailaren 29an emandako 393/2017 Ebazpenaren bidez, onesten da 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planean Toki Programazioaren atalean sartutako behin betiko zerrenda, zehazki "Bizitoki iraunkorretara doazen eta biziguneen arteko bideak" dagozkion inbertsioena.

Proiektuaren aurrekontua hauxe da:

-Exekuzio materiala: 54.898,55 euro, BEZ barne.

-Ordainsariak: 3.441,29 euro, BEZ barne.

Ikusirik obraren finantza plana:

-Obraren kostoa: 58.339,84 euro, BEZ barne.

-Toki Administrazio Departamentuko diru laguntza: 41.224,76 euro.

-Udaleko aportazioa: 17.115,08 euro (2018ko aurrekontuan sartutako partidarekin 1-4540-61000 eta Udaleko soberakinarekin).

Kontuan hartuz Bordalarrea eta Irullegialdeko bideak 2019. urtean sartuak daudela aipatutako planean.

Ikusirik aipatutako 393/2017 ebazpenaren 5. puntua,

Ikusirik 18/2016 Foru Legearen 15. artikulua,

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Arantzako "Bizitoki iraunkorretara doazen eta biziguneen arteko bideak" dagozkion inbertsioaren proiektua onartzea.

2) Arantzako "Bizitoki iraunkorretara doazen eta biziguneen arteko bideak" dagozkion inbertsioaren proiektuaren finantza plana onartzea.

3) Bordalarrea eta Irullegialdeko bideak 2018. urtean egitea soberakinarekin finantzatzuz.

4) Obra hauek soberakinarekin finantzatzea Nafarroako Gobernuko aportazioa ttikiagoa izanen balitz eta Udalak jarri beharrekoa aurreikusitakoa baino handiagoa.

5) Akordio hau Nafarroako Gobernuko Toki Administrazio Departamentura bidaltzea, proiektuarekin batera, jarduketak Toki Inbertsioen Planean sartzeko eta gehieneko diru-ekarpena finkatzeko eskatuz.

Bertzerik gabe, arratsaldeko 20:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Mentxu Peña Lizarazu and.



